

ALTZAk zer dio?

Altzan Donostiako Udalaren esku-hartzea eskandalagarria da inolako zalantzarik gabe. Gaur egun inork gutxi uka dezake Altza masifikatutako zonaldea denik; nabarmena da, aldi berean, dugun lur publiko gabezia. Hala ere, anabasa urbanistiko hori handiagotzen duten lanak egiten jarraitzen dute.

Uneotan lazgarriena Herrerako adibidea izan liteke. Herrera berritzeko egitasmoa hamazazpi urte baino gehiago atzeratu dute eta, orain, eraberritze-egitasmoa martxan jartzeko unean ez dute bizilagunekin adostasunik lortu. Bizilagunen borondatearen aurka egin dute aurrera; ez dute inolako parte-hartzerik bermatu. Plan horrek bizilagunon iritzia guztiz baztertu du. Egin ditugun alegazioek eta protestek argi utzi dute zein den gure nahia eta beharra. Baina Donostiako Udalak, Odon Elorza buru duela, aurrera darrai astakeria honekin.

Berritze-egitasmo horrek bi gai nagusi ditu: San Luis plaza, eta saneamendurako eta uholdeak ekiditeko lanak. Lehendabizikoa ikusita, burura datorkigun hitza hau da: lardaskeria, alegia, "txapuza". Geratzen

zaigun espazio publiko bakarrean, plazan, eraikin bat egin digute; plaza are txikiagoa egin dute. Horrek kezkatzen gaitu gehien, plazaren erdialdearen diseinua eta erabilitako materialak ahaztu gabe. Materialarena lotsagarria izan da; proiektua bera aldatu behar izan dute obra egin eta gero.

Bigarrenari dagokionez, burura datorkigun hitza beste hau da: erokeria. Engainatu egin nahi gaituzte; errepidea eginda arazoa konpon litekeela esaten digute Udaletik. Hortaz, Herrera alderik alde gurutzatzen duen errepidea egiten ari dira. Bizilagunon buru gaitetik pasatuko dena, eta Herreraren benetako beharretatik urrun dagoena. Izan ere, egunero 3.000 kotxe inguru pasatuko lirakeke errepide horretatik baina muzin egiten dio Herrera bertako zirkulazioari.

Bi egitasmo horiek sutan jarri gaitu Herrerako bizilagunok. Horregatik urte hasieratik mobilizazioak eta ekimenak egiten ari gara. Ostiralero, N-1 errepidea moztu eta kontzentrazio zaratatsuak egiten ditugu Herreran bertan. Ondoren, herri batzarra izaten da, hurrengo ekimenak adosteko. Donostiako udaletxearen aurrean ere egin

ditugu protestak. Bestetik, Herripe Auzo Elkarteak moztio bat aurkeztu du udaletxean berritze egitasmo hori alda dezala eskatzeko, eta beste alternatiba baterako dirulaguntza eskatzeko. Horretan gabiltza Herrerako bizilagunak.

Donostiako arduradunei galdetu nahi diegu ea Altzarako dituzten asmoekin Altzan bizitzea ezinezkoa egin nahi ote duten. Arduragabekeria handiz jokatzeko ari dira eta Altzaren egoera hobetu beharrean, bertako bizi-kalitatea okertzen ari dira.

Nola uler litezke esku-hartze urbanistiko horiek? Bertan bizi garenon onurarako beharko lukete izan, ezta? Interes ekonomikoak bultzatzen dituela uste dugu; ez dugu beste arrazoirik topatzen. Enpresa eraikitzaile pribatuek agintzen dute Donostiako Udalean. Enpresen interesak babesteko zinegotzi txotxongiloek hitz politikak esaten dizkigute, itxuragabetu egiten digute eskuartean duten asmoa, eta beren asmo itzelen onura sinestarazi nahi digute; babes ofizialeko etxebizitzak direla, jasangarritasuna dela, hiriaren berritze-lanak direla. Hitz potoloak baina pozoitsuak.

¿ALTZA qué dice?

La intervención del Ayuntamiento de Donostia en Alza es sin duda escandalosa. Hoy día nadie puede negar que Alza sea una zona masificada y que sufra de una evidente falta de terrenos públicos. Sin embargo, se siguen realizando obras que acentúan este caos urbanístico.

El caso más bestial en estos momentos lo constituye quizá el de Herrera. La reforma interior, que ha llegado con 17 años de retraso, no ha contado con la conformidad de los vecinos. El plan se está llevando cabo en contra de la voluntad de los vecinos, negándoles todo derecho de participación e ignorando por completo su opinión. Las alegaciones que han formulado y las movilizaciones que han organizado muestran claramente el deseo y las necesidades de los vecinos. Sin embargo, el gobierno municipal de Donostia, liderado por Odon Elorza, sigue adelante con esta barbarie.

Este plan interior se basa principalmente en dos puntos: la plaza San Luis y las obras de saneamiento y de prevención de inundaciones. La palabra que mejor define el primer punto es "chapuza". Pretenden construir un edificio en el único espacio público que queda, es decir, en la plaza, reduciendo su dimensión a un recinto minúsculo. Este es el dato que más nos preocupa, sin olvidar el diseño del centro de la plaza y la utilización de materiales, que ha sido vergonzosa, ya que se ha tenido que cambiar el propio proyecto una vez realizada la obra.

El segundo punto, es decir, la obra para solucionar el problema de las inundaciones, podríamos definirlo como "locura". Con esta obra pretenden engañar a los vecinos, haciéndoles creer que la construcción de esta carretera puede solucionar el problema. De este modo están construyendo una carretera que atravesará toda Herrera, pasará por encima de los vecinos y estará lejos de las necesidades de Herrera, ya que

ignora los problemas generados por el tráfico interior y al mismo tiempo sería transitada por unos 3.000 vehículos.

Estos dos proyectos de obras han suscitado el enfado de los vecinos de Herrera, que vienen organizando diferentes movilizaciones y acciones desde principios de año. Cada viernes se corta la N-1 en Herrera y se realizan concentraciones ruidosas. Posteriormente se reúne una asamblea popular para plantear nuevas iniciativas. También se han llevado a cabo movilizaciones ante el Ayuntamiento de Donostia, tanto en formato de coches-caravana como por medio de concentraciones. Por otro lado, la asociación de vecinos Herripe ha presentado una moción en el Ayuntamiento demandando el replanteamiento de este plan de reforma interior y pidiendo una subvención para buscar una alternativa. Estas son algunas de las iniciativas promovidas por los vecinos de Herrera.

Y mientras tanto preguntamos a los promotores de estos proyectos si Donostia, con todos sus planes para Alza, va a convertir en imposible el vivir en Alza. Están actuando con absoluta negligencia y en vez de mejorar la situación de los barrios de Alza están empeorando su calidad de vida.

¿Cómo se pueden comprender estas intervenciones urbanísticas si no proporcionan ningún beneficio a los ciudadanos que viven en la zona? Se pueden entender solamente desde el punto de vista del pelotazo económico. No hay ninguna otra razón. Son las promotoras y las constructoras privadas las que están gobernando el Ayuntamiento de Donostia, y utilizan a los concejales como marionetas que teorizan, tergiversan y convencen a los vecinos de las ventajas de sus enormes proyectos como las viviendas de protección oficial, la sostenibilidad o la supuesta renovación urbanística. No son más que buenas palabras llenas de veneno.



AMARAK zer dio?

Pixa egin nahi dugu!

Urteak dira Easo plazako komunak itxi zituztela; urteak, Amarako lekuri ilunenetako bat argitu nahi dugula. Duela hilabete batzuk "Pixa egin nahi dugu" lelopean zenbait auzotar elkartu eta lokal huts horiei, behingoz, erabilera bat emateko herri ekimen bat sortu genuen.

Deigarria da leloa. Baina deigarriagoa egiten zaigu zerbitzu horiek oraindik itxita daudela ikustea.

Esku artean dugun ekimen hau ez da ekimen puntual bat. Amarako azken urteotan nagusitu den utzikeria ez da tabernako komentario huts bat; utzikeria hori

egiazkoa da benetan.

Amarak zerbitzuak behar ditu, eta ez ditu. Ez dugu onartzen erdigunean gaudelako zerbitzu guztiak ditugula esatea; hori ez da egia. Egia den bakarra hau da: Amarak oraindik ez duela ez kultur etxerik, ezta kiroldegirik ere. "Pixa egin nahi dugu" ekimena kezka horren harira sortu dugu.

Denboran atzera eginez gero, beste garai batzutan, ehunka auzotarrek erabiltzen zituzten zerbitzu horiek; auzotarrek eta auzotarrak ez zirenek. Garai haietan inguruko etxeak maiz geratzen ziren urik gabe eta bertan zeuden dutxak